

EZPONDA
(Jean de Sponde)
1557-1595

euskal-neurthizetan

Poésies de Jean de Sponde
traduites en vers basques
par
Jean-Baptiste ORPUSTAN

*

*

Aitzin hitza

Eneko Ezponda ("Enecot Desponde"), lege gizon, erret-prokuradore, goizik kalbinixta, Juana Labrit erreginaren segetari alhargundu eta haren "Catherine d'Ohix" bigarren emaztearen azken haurra zen "Jean de Sponde": *Johannes Spondanus Maulonensis Vasco*, berak Bale-ko unibersitatean eman zuen izen latinduan. Berriz alargundurik Eneko, orotara 12 haurren aita, "Saubade" Hoztakoarekin ezkontzen da, eta hortik sortzen "Johannes"-en anaia-erdia, Henri de Sponde Pamiers-ko apezpiku izana. "Ezponda" deitura, erdalurik "Esponde" edo "Sponde", lehenagoko Ezponda Üdüreñeko aitoretzetik zuketzen.

Erreginaren manuz ikaskuntzak Ortesen, Laskorren "Biarnoko kolegioan", gero Balen (Suizan) eginik, theologian, grekan, filosofian (bereziki « platonixma »), latinera Homere itzulirik, Ezpondak emaiten ditu lehenik Pascal de l'Estocart musikari aipatu eta aidixkideari eskaini hamalaurkun batzu (1581-1583), gero ezkontzeko bezperan (1588) maitasunaz 26 hamalaurkun bera hil ondoan Erruanen agertuak (1597), eta zenbait « kantu ». Urte beretan ontzen dituen *Poema girixtinoak* eta hautan *Herioaz bersu eta hamalaurkunak* (1588) Nabarrako eta 1589-an Frantziakoa izango den erregeri eskaintzen dauzko. Utzi dituen bertze idazlan handietan, neurthitz ala hitz laxo, bada Hesiode-ren *Lan eta Egun*-en itzulpen latina.

Erlisoneko gerletan eta protestanten alderdiko karguetan (Erroxelan) barne izanik, Frantziako errege berria, Henri IV « Nabarrakoa edo Biarnesa » katoliko itzultzen denean (« Parisek meza bat balio du bada ! » erran omen ezpazuen ere...), Ezponda ere egiten da, nahiz erregeren baimenik gabe. Aita, Eneko Ezponda kalbinixta gelditua, alderdikari katolikoek, Lukuzeko jauna buru, 1594-ean erahiltzen dute Donapaleun. Berak bizi laburra bururatzen du 1595-ean Bordelen.

Frantzian, D'Aubigné 'ta Du Bartas-rekin, olerkari « barokoak » diotenen lehen lerroan dadukaten Ezpondaren neurthitzetako gai eta ardatz nagusiak bi hitzetan laburtu nahi balire, erran laiteke erlisionekoetan « egiazko zorionaren gutizia » lizatekeela, Neoplatonixma girixtinoak European hedatu zuen gogamenari hurbil, eta maitasunezkoetan sendimenduko « bermetasun iraunkorra », Aro Zahar greziar eta erromatarreko aiphamen eta itxurez nasaiki aphaindurik. Itzuli diren olerkietan batzuek baderakusate ere gogo arin eta jostakinago bat.

Erdal-neurthitzen euskarazko itzulpen huntan erabiltzen da Oihenartek XVII-garren mendean mugatua zuen neurthizkintzako egitura, elisione 'ta sinalefa guziak eginez bokal ezabatua parentesien artean emanik gehienetan eta -e aireko gakotxaz. Errimako aldiz, Oihenarten ereduena kontra, onhartzen da azkeneko bokal edo mintzaki bakarra, bokal asonantza beraz, eta errima egiazkoan bi ahotsetakoa. Frantseseko hamabiko edo « alexandrino » orde, molde hortako neurthitzetan, hautatu da hamahirur silabakoa, zazpi eta sei hautsirik gehienetan. Ezarri dira ere, behar zenean eta Ezpondaren idazkiari ahal bezain hurbil egoiteko, neurthitz laburragoak.

Itzulpen huntako erabili da Ezpondaren idazki andana bat, neurthitz ala hitz laxo, biltzen zituen Alan Boase-ren liburua : *Jean de Sponde, œuvres littéraires*, Droz, Genève, 1978.

Jean-Baptiste Orpustan

Zati lehena

1583

Nabarrako Erregeri

Hamalaurkun

Errege bat, Jaun(a), ezin bada handitua
Gizagaizo batek egin eskaintzetarik,
Balegizuken bat baliz aski ausartik
Hortako lizateke(a) erasiatua?

Ez etzintezke, segur niz, ofensatua,
Berdindua baituzu, bihotza zabalik,
Trajanen loria, izanen zen aitzitik
Berak uste bano hobeki hartua.

Pazkal enekin baliz, segurtamen bermez,
Banegioke, aitzinetik eginbidez,
Eskaintza bat zure Maiestateari.

Hartuko zinuenean Alexander-ek
Timotherekin, Terpandrekin Espartek
Garhaiturik lukete bihotza bekaizti.

Zure Maiestatearen meneko eta zerbitzari xume 'ta obedientena,
Johanes Ezpondakoa.

*

1581-eko hazaroan

Pascal de l'Estocart musikari bekan eta hoberenari

Ene Pazkal, nondik duk hoin eder musika?
Entzule guzien bihotza duk eremaiten.
Hilkorretarik direa gozoak ikasten
Ala zeruetan duk hartzen teoria?

Kantariak ezpaduzue makur gogoan,
Bihotza bekaitzez ezpazaizue hartzen,
Haserre zoro batez harturik erotzen,
Ez ote da jainkotar hunen harmonia?

Hortan nuk, ene Pazkal, zeruko musikak
Gogoan jarri zauzkan dohain ederrenak,
Zerutik hunarano hinduen igorri.

Eskergaitz ez izaiteko, gai bat hartzen duk
Ederlana bezain zerutar. Ongi baduk,
Biz bururapena hatsarre(a) iduri.

*

Ene adixkide kario eta musikari guziz hoberen Pazkal de l'Estocart-i.

Hamalaurkun

Zer abantail dukek, Pazkal, hire musikaz
Ene neurthitzek heda dezaten ospea?
Uste duk datekela biziki hobea?
Ene gogamenak hortan bertzela doaz.

Antalkid' Espartarrak huntan neure museaz
Artzen nizal(a) entzunez dezake juja
Lakoniar gogoz arinegi nizala,
Deitora laiteke galtzen dutan aroaz.

Nahi dut, lerrake, has dadin gorets-kantu
Nehork eztuenaz oraino goraihatu.
Egia duk, Pazkal: ez ote diat ukan

Arrazoin onik neke horren baztertzeke?
Lan oso bat hortaz nialarik beteko
Ainitz erran ondoan, gut(i) izanen zian.

*

Zati bigarrena

I

Maitasunaz hamalaurkunak

I

Uren gainean bada lur haur erakia
 Hoin bermerik oraino nola da jasaiten?
 Zimenduez badute haizek oinarritzen
 Aurdikitzetik nork ahal du beiratua?

Hoin zuzen arautu duen kontra-phizua
 Ehoiz eztea noiz nola gurtuz higitzen?
 Eta nork dauku Lur hau hoin azkar egiten
 Hoin aldakorra duelarik ingurua?

Gorputz hori horrela badoa goitituz
 Ur-haizen erdian ehoiz ez khordokatuz.
 Mirakulua! dutan maitasun gorena,

Gaitz hauk jiten ikusiz ufan orotarik,
 Egun oroz ezpaliz, molde berdinetik,
 Aldapenen erdian iraupena bera.

II

Ikusiz indarretan Alexander hura,
 Kaezarren bihotza betea jaidurez
 Orogen erretzen handi-nahiko suez,
 Gero hautsean baizik ez utziz orhoita;

Ikusiz haien loria bakarra dela
 (Ekaitza joan denean hantua doluez)
 Iguzkia dakusaten herri guziez
 Jabe, haien jartzea bere legetara;

Nik ere hek bezala baduket urgulu,
 En' erramuek eztute zer ahalgetu,
 Hek oro salatzen 'tut, gorets eztezazket:

Ederra, hire gana doatan gogo,
 Tirano hek hartzetik zegiten triunfa,
 Nik triunfa hartu dautanetik baduket.

III

Norbait zeruan balago beherera so
 Lur eta leihor hauen eremu zabaler
 Oroa lakidioke tita bat ager,
 Hedoi baten oihalaz gorderik oraino.

Oihal urdin hortarik hara so badago,
 Krixtal inguruer, urrez diren izarrer,
 Mugarik gabe diduriten eremuer,
 Hori handitasun ezin jakina zaiko.

Maitasunak bidatua nauen zerutik,
 Begia geldi so dagon zeru maitetik
 Baztertzen badut apur bat punta zorrotza

Maitasun bertzetara, badakuskit gau-pean
 Epikuren munduak atoma xehetan:
 Hek lur hutsean, nik zeruan maitatzea.

IV

Bethorzkite eder mila begi aitzinera,
 Begiak idekirik, bihotza hesten dut;
 Hezurak eder bakar batez sutan ditut
 Eta su hortan dute bakarrik ase.

Aroko, biziko garratzak, bainerama
 Egoitza zorizkotik, atsedean han baitut,
 Arima gutiago gazki-arazten daut,
 Urriki gabe ditut elheak, xedea.

Eder gilakak, eztiki 'tuzue hezten
 Gogoz ergelak, errex baitute zikintzen
 Joan diren maitasunen orhoitza xahua.

Enauzue hezi zuen indar guziez;
 Arau nahi baitut izan iraupenez
 Ederrez neure lorea den bezala.

V

Hiltzera noa; hura ez hor izaitetik
 Jalgitzen den axola, gaua bai eguna,
 Dira noiz nahi nun nizan eztakitala
 Dagitenak, gaizkitzen ala hats galdurik.

Mila min badathorzkite bihotzmin batetik,
 Ustez nihaur lagundu demadat kaltea
 Atsekabe guzien uhainak nerama,
 Hori sendi badut, eztut erran-ahalik.

Akteon hura niz zakurrek urratua!
 Ariman argia hainbat dut ahuldua
 Nun bizi-araz orde bainau hil-arazten.

Bi Jainkosek josi dute gure zoria,
 Arrazoinak ezperdin, berdin herioa,
 Nik ez ikusirik, hark ikusi baitzuen.

VI

Jainkoa! nahi nuke, auherrick eskua,
 Aho-begien lana berriz hasten baliz!
 Idaztea guti da, mintzo-soak aldiz
 Ainitz; bata lan hila, bertzea bizia.

Idatz dezagun eskuz eder maitaldia:
 Lekuko mutu horrek eztu gure begiz
 Baluken indar azkarrik, ez elhe biziz
 Ukan lezaken bertute zintzoagoa.

Ezpaliz alta holako zurkaitz ahulik,
 Ez hetaz hazten dugun fruitu horzkaturik,
 Maitasuna gosez hil eta honda laite.

Atsegin hoberen aiduru, dugun idatz,
 Gutizier badezak' aroak irabaz,
 Bermea dagigun aroaren garhaile.

VII

Urtxo xamur eztiak banitu nik ere
 Lumatze hoin ederrak loturik soinean

Ehun gatina berriz burdinek estekan
Gogo haur auherretan atxik lezakete.

Haizearen hegaletan hegaldak naiteke
Onak gordeak zaiztan egoitzar(a) abian;
Nazkez arindurik nihauren ikustean
Huts bortitz horien senditzerik enuke.

Ai! urtxoñoak, soinean zalutasunez
Zuen idurikoa baninz, maitasunez
Ariman zuen iduri nizan bezala!

Baina zer? nahi bezainbat dut huts egiten.
Maitasun hoin azkarra nola d' airaturen
Hegalez baduzue betetzen mundua?

VIII

Hainbat nekerekin hartu dutan thesor hau
Beiratu nahi dut oraino nekerekin,
Berant etzanik jeikitzeke laster egin,
Azkenean ezteramatzatentzat beilatu.

Ene begiak ukan ahal ezpaditu
Segurrenak egoitzaren ondoetan zain,
Eta gerta badadit ere nik badut huts egin
Hurbilagoko batek dautala hartu,

Eztut alta nahi egon horrela khexan,
Sineste xoilak banatxika segurrean:
Aldatzen ezpaniz, ezta hur(a) aldatuko.

Gauden hortan, erne begia, oina gurbil,
On eder batekin biltzen da laudorio,
Ezpad(a) uzten galtzera mila daitezke bil.

IX

Hainbat gaitz iraganik onik eztut ukan,
Sinetsazu bederen leial nagozula;
Sinesten baduzu, sinesten eztuzula
Alegiaz egizu liskar ttipietan.

Ederrena, zuretzat hiltzen nizanean,
 Uste duzu laidoa nik eztutala
 Senditzen? Ifernua baino gaitzago da,
 Mundu guzia gatik ere nago hortan.

Zur' edertasun mugagabeak, egia,
 Ukanik ere bizi milaka bizia,
 Ezin nezazke zerbitza behinik behin

Eskastu gabe baduten beteginari;
 Zuk ez sinetsirik ere hau bait(a) ageri:
 Maitez maitasun(a) ezta ni bezain betegin.

X

Itsasoan ekaitzari dihardukien
 Arkaitza baino banago geldikiago,
 Inharros nezanak berme nau aurkituko
 Ari balizat ere mundua jaukitzen.

Egun oroz nakusana hainbat azkartzen
 Betiko xede berean, hortaz da mintzo
 Aire 'ta lur nahasiz ene nahasteko,
 Ezinez gehiago d(a) erasian hasten.

Eztut ez (gaitzesteko baizik) entzun nahi
 Bildu nahi nauen solas xorakor hori,
 Ebatsi nahiz ontasun hau errabiaz.

Duzkigun mintzatzen, hitz bakar hau aski da:
 Amoreko gerlan ontsa hazi gogoa
 Ohorez oso da jabe bada sariaz.

XI

Lehen ene solasak etzaizkitzun mintzo
 Sutzen ninduen maitasun suharraz baizik,
 Baina begia nitan jarri duzunetik
 Iraupenaz baizik enaizu mintzatuko.

Maitasunak berak, baitemata lagungo,
 Baitaki gizaki gogoa zein errexik
 Den aldatzen, uste du del(a) enganaturik
 Zu maitatuz ezpaitut urrikitu gogo.

Ainitz ikusten da su bizitan erretzen;
 Su hori zaienean, errez, iraungitzen,
 Ezta khe guti bat baizik, eta hauts meta.

Maitale horiek uzten 'tut ber' oldetan,
 Aski zait eni har dezazun gogoan
 Ezpaniz hiltzen sua hil eztaitekela.

XII

Ez eror, bihotza, hor eztelako nazkan,
 Azkar bada nazka, behar duk azkarrago:
 Bahintz ere bidean heriotzerako,
 Harzkik berriz hik indarrak, ez amor eman.

Hainbat gduiek uzten haute jakinean
 Xederik eztukala indar horien hausteko,
 Ago guardian ez gaitz hortar(a) erortzeko
 Hire maitasunak berea gal eztezan.

Gibelera daudenaz geroz hasperenak
 Utzkik utz joan daiten gainditurik uhaitzak,
 Irauteko mendi hartsura goiti hadi:

Mendian zian jaun erromatar zuhur bat
 Bazterrera gduak utzirik aldebat
 Trufatu Hanibalez, et' oldea hautsi.

XIII

Bahion, Arkimedez, erraiten dutenaz,
 Eman izan balizaik une bat nun berma,
 Inharros, erakhar hezakela mundua
 Hala nola higitzen den zam(a) arinenaz.

Antze hain ederraz, hir' eskuen indarraz
 Ahala bahu berriz jiteko mundura,
 Ene bihotzak badatxikan maitasuna
 Berma-gune hukek baliatzeko hartaz.

Ikus ote laite zerbait azkarragorik
 Geldiago dagona higitzen delarik
 Et(a) aldatzean bermetasun baduena

Baino? Segur nuk, Arkimedez, nahi bahu
Mundu guzia higitu, nunbait bermatu,
Nik bezain berme behar huen Maitasuna.

XIV

Hektor bihoztuna, Troiaren harresia
Untzi greketara suhar jalgi zenean,
Akilek mintzo trixte batez zuenean
Xoratzen bihotzmina, bozik mendekua,

Urean Ekhia gartzen den bezala
Arrai uhainak goiti bultzatuz ikharan,
Horrela Grezia guzia zen zalantzan
Hartua izan lotsaz zuenaz hartua.

Ajatzen erredola zen azkar bakarrik
Oldea jasan zuen indarra hezirik.
Huts izigarri hortan behar nuen galdu

Neure maitasuna, hartua mila nazkez,
Egunean lanez, gauetan langitzez,
Iraupen(a) erredolaz ezpanu harmatu.

XV

Karthago burgoi harek, Munduk(o) ohorea,
Erromatar herriko beldurra hain luzaz,
Hainbat indar eginik bihotzaz, eskuaz
Lehena jarri nahiz, bigarren Erroma,

Hezirikan abantzu bai lurra bai ura,
Zuen urguluak jabeturik zeruaz,
Jakín zuen baina berantegi haizeaz
Zolatu den xedea lurrera doala.

Ozar hura, maitatua zuen ospeak
Suntsitu zuen eta phiztu zuen suak.
Urrikal orde, Karthago, dagiat irri:

Suak hogei egunez erre bahinduen
Zer herrake, su hunek zein luzaz dirauen
Nitan ikusiz, ezin daitekela(a) iraungi?

XVI

Numantia bihoztuna natzaik jarraitzen,
 Erromaren zigorra, diat ere nahi,
 Kuraiarekin biziz, ilober ikasi
 Jaukituz irabazten eta zainduz hiltzen.

Hamalaur urtetan hir' etsai iraunkorren
 Ozartasun eroak, ezpaitzian zori,
 Ezin ihardokiz hainbertze bertuteri
 Etsiturik esperanza zian galtzen.

Azkenean garhaitzera zitzaizkan heldu
 Hihaurek baihinduen hihaur menperatu,
 Ez utziz harresirik baizik eta hautsik.

Indarrak hausten dauzkotan behargabea
 Azkar baino baldin bada maltzurragoa,
 Hik nola nahiago diat izan hilik.

XVII

Gerla bat sendi dut arimaren barnean,
 Arrazoin(a) alderdi bat, sentsuak bertzea,
 Haien gudu sutsuak ezin du bakea,
 Hainbat du bakoitzak zorrozkarri bertzean.

Sentsuek harma dute berina hain beran
 Nun ezpada bihotza laster baztertua
 Arrazoinak baituke zorion osoa
 Den alderdi zuzen, azkar, hoberenean.

Urrundik argi batek dematarik su,
 Horren azpian bihotzak nahi du gurtu.
 Arrazoinak aldiz minean nau azkartzen.

Sentsu khexu horier Erroman bezala
 Dagiegun, errotik ditzagun athera!
 Izan dadil(a) arrazoina Nagusi hemen.

XVIII

Etzaiten ustegabe, lanez lan gogo hau
 Hainbertze joan-jin egiten ari delarik,

Urrunera bahitua denaz geroztik,
Higitzen ezpada izanik ere zalu.

Egiten duen guzian ikusten duzu
Oinarri hain onetan dagola jarririk
Nun ezpailuke nahi jasan aldamenik,
Sua lekuz aldatzen ahal dela salbu.

Bi gauza kontrako hauk geldi daude nitan:
Ahul higitzea, bermea gogorrean.
Argikiago jakin nahi duzu nola

Aldatu gabe gogoia zaitan higitzen?
Bermegun(e) inguruan itzuliz dabila,
Zerua den bezal(a) izarrean itzultzen.

XIX

Ibai hunen geldiari nindagon beha,
Itsasora zein eztiki derematzan urak
Izan gabe hauntua Iphar-haizen ufak
Ez, ur-hegiak xehatuz, jauz-arazia.

Ikusiz sendi ditutan gaitzen uhaina
Nion: "Eztaki maitatze zer den ibaiak;
Gar batek ahal balitzazko phiztu hormak,
Aurki lezake nik bezala maitasuna;

Hoin ontsa balu senditzen, uhainak ainitz
Lituzke, Maitasuna da nekez ez geldiz.
Atsedena darraika gero nekeari,

Gogo bermeak heriotik badu zaintzen:
Ezpaitu merezi nekean denak hiltzen
Atsedenean berriz ukan dezan bizi.

XX

Tuzkotarrak gudukan Erromara buruz
Zoazen, harmak eskuan, khexu belharra,
Horatius bat zenean jalgi zubira
Ber-berak hainbat gizon bapatez geldituz.

Luzaz gudukaturik, bakarrik kopuruz

Ez kuraiaz, omen, garhaiturik, lerroa
 Hausten du ber' eskuaz, oldean badoa
 Jauziz Tibrorra, berekin oro salbatuz. (*)

Ezta nik dutan maitasuna ttipiago,
 Ustegabeen nazkek metan badute gogo
 Hau nahasten, berme da, berme gduetan

Hainbaterano nun orduan irriskua
 Urrun baitu; nigar egiten murgildua
 Itxaroa baduk(e) azken etsipenean.

(*) "Quatrain à rejets multiples" (Aitzin-jauzi ainitzekilako laurkuna): Alan Boase, *Jean de Sponde, Œuvres littéraires* (p. 68).

XXI

Ez, eztut gordetzen hoin ederra den garra;
 Lekukotasun dematala mundu guziak
 Hurbilena denak bai urrunagokoak:
 Errazu nun den maitale leilagoa.

Azpiz omere gorde horiek gordeka
 Beharri xokora 'tuzte salatzen arthak
 Hainbaterano hartuz ditutan nekeak,
 Bakoitzak daukalarik gorderik berea.

Ezkira beraz berdin: bihotzak estaliz
 Doaz hek, neurea nik idekirik utziz.
 Arrazoinekin dira sentsuez ahatge,

Gorritu gabe nik ohorezki maite dut,
 Maitasunaz hek guziak gaintitzen ditut,
 Berhetuz iraupena beharko dut maite.

XXII

Badiote zeruan borobil itxurak,
 Erakharririk bat bertzeari, direla
 Azpi huntan hainbertze gauzen arrazoina,
 Noiz abantailgarriak, noiz damugarriak.

Orok aldizka dematzeten ohoreak,
 Bat igaiten, bertzea jausten, oro dira

Ainitz moldez ekharriak bere mugara:
Utzi, galdu behar dituzte ber' itxurak.

Maitasun bakar hau da gaitz hortaz garbi,
Nahi ditu ber' indarrak ereman goiti,
Nehoz ez ephe batez ere jaustekotan,

Ez alta behar banu jautsi heriora!
Orotara dago (hartzen bada zeruan)
Berme, geldi den bezainbat Iphar-izarra.

XXIII

Egia da, maitasuna nuen aldakoi
Ikasi baino lehen bermeki maitatzen,
Ikusi(a) ezpanu borobil hori suntsitzen
Enintzan izanen oraino goreskarri.

Ikusten dut orai zein izanara bitxi
Den bizi bat aldatzetan delarik hiltzen,
Eta hortaz maitasuna baita gaitzitzen
Azkenean mendekatuko da segurki.

Itzuli hainbat eginik emaiten bahiz
Bideari, nekaitzetik atheri, berriz
Gero, galernan, hondamen badadi gerta,

Edo hutsegin, "Merexitu duk" di(e) erranen.
Maitasun zintzoak ez aldatzeko gemen
Ukanen dik, ezpaituk aldakoi egia.

XXIV

En' Ekhia, zu begi hauen argitzale,
Argi soberaz dauezu gentzen argia,
Zu baizik ehor eztakusat; en(e) arima
Burgoiak zeruetan du bakarrik maite.

Bertz(e) edozein maitasun ifernu zait abre,
Lastaz, herioz bete, handik ihes noa
Utziz garbiki garbiago bide hura
Gaitzago dagitener, ustez egin hobe.

Atseginak errex du maitasuna phizten,

Indar biziago bat dut alta senditzen:
Nahitez lezatake maitaraz Ekhi hau.

Indar hori zutan da, zuk duzun edertza
Puxantak, bakarrak, urrun ere bazira,
Derakhar maitale hau, maitale bakar hau.

XXV

Behazu zuzenki ohiz bere burua
Erretzen dutener ederren aldarean:
Ikusazu haizeak zorokerietan
Iraungitzen dauela phitz-orduko sua.

Baina ni hain luzaz zuretzat suntsitua
Eniz bermatasunaren suntsitzekotan,
Barnago sartzen baldin banauzu ni suan
Iraunagora doat maitasun urrea.

Ederra, zu gatik, Ororen oro hau deus
Etzait, On horren ondoan ongi hauk ezteus,
Zure zerbitzatzea mila gehiago.

Nahi duena gaizki bedi horren gatik,
Zuk eman oinazetan dut hil nahiago
Egon baino zorion betean bizirik.

XXVI

Haizeak burumbetan, hedoi ilunenak
Nahasiz zaukutela gordetzen eguna,
Ifernuko lezeak zoazen zerura,
Itsasoan mendiak, munduan ekaitzak,

Ikusi nuenean, utziz ur-hegiak,
Xori bat airatzen uhainen erditara,
Han ezartzen xiri bilduez ohantzea
Bapatez ematuz haun errabiatuak.

Ene maitasuna berdin, Ur-xor(i) iduri
Bihotz barnera behin zizatan ethorri.
Gogo dohakaitza bete daut zorionez,

Nahasmenen ondotik orai nau baketzen.

Urtean aldi bat d(a) itsasoa jabaltzen,
Betiereko badut nik ariman bakez.

Kantu I

Nola niz zur(e) ustez biziko
Zur(e) ederretik hainbat urrun?
Arima bat iduri preso
Leze zilo batean ilun
Igurikatzen baitu gero
Hil beharko den oren oro?

Orotan dakusat itzala,
Zeruak berak zaizkit beltzak,
Egun argia gau ilun da,
Gauak enetzat ifernuak,
Hain beltz den ifernua bera
Gau hauen ondoan ederra.

Inguratzen nauen mundu hau
Badabil khexaz gainditurik,
Bakartasunik baizik eztu
Ene griñaz bete-beterik,
Bizia goxoaz zait hustu,
Haren hutsak ebatsi baitu.

Urtzen niz ezkoa bezala
Phiztu den su baten ondoan,
Zutarik baniz urrundua
Biziago da sua nitan,
Handiago den arau sua
Handiagotzen oinazea.

Hiltzen ari baniz segurki
Dutan arima guti hunek
Gogo leialena du beti,
Hori diot(e) ene solasek.
Bertzea zait airatzen ari,
Ondarra doat elheari.

Elhea, bai! deitoratzeko
Hasiak zaizkitan oinazez,

Beldurtu beharko dut gero
 Eztirela joanen lasterrez,
 Ene zoritxarrek oraino
 Eztutela bere muga jo.

Oren dudazko hunek, Jauna!
 Enetzat segur ditu gaitzak,
 Zenbat urrun duen laguntza
 Hain urrun dagon en(e) ederrak!
 Ehoiz erran, senditu dea
 Pairu hunen idurikoa?

En' arima bere portuko
 Gerizan utzia bakean
 Gertatuko da herioko
 Ekaitzen erdi-erdian,
 Iraupenak untzi dagiko,
 Haren izarra duk(e) itxaro.

Zorigaitz horrek diraueno
 Ene auhen hauen kantuak
 Zure beharrietara gaizto,
 Hartuko 'tu hor atsedanak.
 Nihaur ethor nadin arteo,
 Ederra, duzun hortaz gogo.

Orduan itzuliz milaka
 Galdu dutan hainbat atsegin,
 Hil diren hainbat esperanza,
 Goaitatu diren ongi-egin,
 Hemen izanaren ezta
 Emazu hutsaren minera.

Kantu II

Oi nik hartua bihotzean, (*)
 Gogo hau xoratu duzuna,
 Hoin laster nor(a) airatzen zira?
 Utzirik nahigabe hautan
 Hortara hertsatu nauzuna?

(*) *Ezpondak kantu huntan emazte bat du mintza-arazten.*

Orai ote du tragediak
 Ene biziari bortizki
 Ekharri behar makurraldi,
 Ahuldurik ene mintzoak
 Airean hil hoin gaizki?

Laido hunek eztu barkamen,
 Ezen harmetara joan orde
 Gaitz hautarik ni jalgi xede,
 Uzten nauzu bakarrik hemen,
 Nigarrez, ariman oinaze.

Eiki, beldurgarri da zutan
 Zurtz trixte hunen ikustea
 Griñen gau batez estalia,
 Joiten etsiaren harrian,
 Izan faltaz konsolatua.

Beraz zuk hemen huts eginez,
 Nundik dutan nahi zinuke
 Min hunen ahultzeko bide?
 Doanean nitan azkartzez
 Baitagizu begiaz alde?

Zutaz nizanean orhoitzen,
 Behar dut bada hau aithortu:
 Minen andanak hertsatzen nau,
 Ezin ahalko da jasanen
 Bozkarioz denean aburu.

Eztut gogoa nik moldegaitz,
 Etsai bi hauk elgarretara
 Bil ahal ditzadan ezin da,
 Osoki zurea behar niz,
 Duela bertzeak itxura.

Manatua duzunaz geroz
 Maita zitzatan ageriki,
 Gaitz handi hortan nuke nahi,
 Mina hortara helduz geroz,
 Ukan berdinki sendagarri.

Zein hobeki nezaken jasan
 Jasan behar dutan gaitz hori,

Baina dudetan nauzu jarri,
Ez zure begien laguntzan,
Egin du nitarik itzuri.

Baina debaldetan ari niz,
Ene zorigaitzen bortitza
Dolumenez handitua da,
Segurkiago dut ixiliz
Ukanen erremedioa.

Begi eder hainbat maiteak
Gogo duzunera zoazte,
Kharioak zaizkitan ume
Ehoiz utzik(o) etzituztanak,
Zuek utzi banauzu(e) ere.

Kantu III

On bat nahiegitzen,
Eta berak nardatzen.

Aski dut, ezin nago
Hoinbat enganaturik,
Behar dut zuhurrago
Hoin luzaz ikasitik.

On bat...

Zer? egualde guti
Esker gaitzez hartuak
Iraun behar du beti
Betez urte-mendeak?

On bat...

Ustegabe dut ere
Nizan ahulduran
Aroak hain iresle
Nazka hauk jan eztitzan.
On bat...

Gar eder huntan ezta
On bakar bat baizik,

Nik ariman dutana
Betira joan nahitik.

On bat...

Gaitz hiltze bezain gor hau
Goxa dezaket elhez,
Ahul da sendagailu,
Gorrago gaitz(a) ainitzez.

On bat...

Huts hau hain da bortitza
Bitxiki nau ezartzen,
Biz(i) ikusiz ederra,
Ez ikusirik hiltzen.

On bat...

Egia baduk, Ekhi,
Hire garrena Dafne-z,
Badagiat eresi
Biek badakigunez.

On bat...

Hir' atsegin zerrenda
Emak egunez egun,
Laster hadin hegaldia
Nik nahiaz hegaldun!

On bat...

Lasterraz minen muga
Badautak gibelatzen,
Ikusak en' Ederra
Nik nola sendi dezan.

On bat...

II

Bersuak herioaz

1. Gehiago, begiak, ez egon lilluran,
Biziaren gar eta phindar argietan ;
Hets betespalak, ilunez estal, begiak ;
Ez indar ohituen ahultzeko xedez :
Bete nahi zituztet gar biziagoez,
Gautik dirad' egiten ikusle hobeak.
2. Biziak nardatzen nau; en' adin xamurra
Egun apurren zamak auhenka daduka
Laster erditan banakusa nihaur hautsirik,
Ez batere nizalakotz bihotz eskasa,
Ekaitzetik landa hartzen dut atherbea,
Iraganen herraz geroa gaitzetsirik.
3. Ikusi dut Mundua gozoen besarkan,
Oinaze baizik eztudalarik besoetan;
Udalehen alaiak zaizkit negu gaitzak,
Atsedean bademon haizexuri goxoa
Iphar mingarri; hark segurra, nik ikhara:
Zenbat ezperdinak ditugun bada xedeak!
4. Mundu hau bere baitan ari da maheltzen,
Bihotza maite duenetik ezt(u) urruntzen,
Bakarrik baitu maite bere moldegaitza.
Gogoak aldiz banerama ni mundutik,
Zerura nauela hurbiltzen, oraidanik
Haren Ederrari dagoit maitasuna.
5. Zerbait sendi dut nitan erasian ari
Zeruaren kontra Munduaren alderdi,
Ber' itzal ilunaz belztuz haren argiak.
Su huts den Gogoak gutiziez nau gartzen,
Ur huts den haragiak urak sur(a) ixurtzen,
Ur horiek eztituzt(e) iraungitzen suak!
6. Haragiak, Munduko esteusek bildua
Oraino nahi du bizian egon hartua,
Bizi hobe bat nahiz Gogoak aldiz hil.
Alderdi biek neramate lanjer handira:

Ene Jainkoa, bietan egik hautua,
Azkarren den alderdira gero nadin bil.

7. Hik lagundu gabe oi Jainkoa! haragi
Urgoiak gudutik ezin nezake jalgi,
Bere lurretan baita, bertze' arrotzetan.
Atseginen goxoa sendi haragiak,
Hor eztirenez esperanza du gogoak,
Usteak eztu behar gauzarekin trukan.
8. Hir' eskuaz bahuen Mundua moldatu,
Hir' Ederrera bada harena berdindu,
Uste du haragiak Oro haren dela,
Harentzat oroa betegin zela, beraz
Hantzen duk, Jainkoa, hir' eskulan izanaz.
Eta guk hautsi behar hir' eskuz egina?
9. Horrela haragiaren indar maltzurak
Onetik agerian moldaturik gaitzak,
Azpian lanjerrera gurtzen du gogoa.
Athor bada Jainkoa, emak hortan eskuz
Gogoaren indarra hireaz berhetuz:
Zuzen onak behar du maiz zurkaitz bat ona.
10. Lotsa gabe, Gogoa, sar hadi guduan,
Haragiak eztaik zuzen on azkar hortan
Berinazk(o) erredolaz, seskazko besoaz
Baizik joiten, berin(a) eder horren hausteko,
Seskaren mozteko, Jainkoak hau jantziko
Burdinaz: hik bizia, hark Hobia gerlaz.
11. Aski jasana da bipia ausart horren
Burgoitasuna hire handitasunaren
Nagusi. Lagund(u) orde behar duk manatu,
Xahutu lohiztatzen hauen haragia;
Gilikor zaik heure zaintzeko gutizia,
Hihaur zaind' ustez, Gogoa, behar duk galdu.
12. Hunkia senditzen haut khexaldi zenbaitez,
Menpeturik izaitearen gogoratzez,
Soinaren loan ithotzen zaik amets hori;
Jainko mintzoak badauk beharria joiten
Lo beteginetik bapatez hiz atzartzen,
Joan den orduko berriz lotzen hiz loari.

13. Ari hiz noiz garhaitzen, noiz amor emaiten,
Noiz abian Zerura, noiz berriz erorten;
Ber' inguruetan hau Munduak bildua;
Gehiago, gutzizatuaren beldur bai hiz,
Itxaro zaikanaz beraz oinazetan hiz,
Ona ikusten eta, gibelera hoa.
14. Lurretik joaitearen deliberatzeko
Dukan ephe gutian, erhautsezko lano
Goiti bultzatuak hartzen dauzkik urhatsak;
Hire gar herakiak dakuskit jauzika,
Haize mozten hire hegalaren uztaia,
Baina hozturik jautsiak zaizkik hegalak.
15. Ondikotz! Zer duk leze kharats horietan
Hir' itsuzkeriez belzten ditukanetan
Bilatzen? Ilunbetan zer ari hiz bada
Hatzamuka? Jainkoaren hatsaz phizturik
Hir' argiak eztik hor uhainik khez baizik
Duen ezin hiltzea bortxatuz hiltzera!
16. Hegi zorrotz hauen Ifernuan zein ibar?
Itzal laztagarri hauen gauan zein izar?
Hainbat haizez jo hertsunean zein goxaldi?
Kuraia har, Gogoa, indar berriak har,
Jalgi, hi, zotz bihotza, azalean zehar,
Eta, bizirik, zotz et' azal hil arazi!
17. Ikas ezak luze nahi dukan Arotik,
Joaiten, galtzen denetik, iraupen gabetik.
Oro lehian, galtzen, Aroan badoa:
Nun aurki dezakek luzea den iraupen?
Ez hemen! Ezpaduk Gaitz horren muga neurtzen
Eztuk hasten ahalko nahi dukan Ona.
18. Hire Gaitza presondegi zaik, presondegi
Gau-egun axolaz jaten hauen soin hori:
Hauts ezak presondegia, hauts azkenean.
Orduan dukek ibar, eguraldi, Geldi!
Jasanik hainbertze gau, haize 'ta nekaldi
Joiten, iluntzen, hertsatzen heure gogoan.
19. Oi bizira deraman Herio goxoa,

Bizi hartu(a) izaitetik ez beldurtzekoa!
 Hiltzeko beldurraz bizia zein den bortitz!
 Itsaso bat da bizi hau, ekaitzen hotsa
 Hondamen segurraren mehatxu bat gaitza:
 Honda gaiten beraz, honda, Portur(a) egotziz!

20. Badakiat, Gogoa, aire 'ta ur horrek,
 Lur, Su horiek, Mund(u) inguruko zeruek
 Hantzen, urtzen, hartzen, erretzen dauzkikala
 Gutziak. Lakegarria badakusak,
 Amultsua. Hobe dituk alta zeruak,
 Han duk maite goxoki, laket atsegina.
21. Maitasun, Atsegin hek, Aingeruek balsan
 Jaikoaren mirer dagietela laztan,
 Neurturik bere mintzo guzien doinua,
 Bertze maitasun dituk, atsegin ezperdin,
 Hemen dakusanak ezer ezтик haiekin
 Berdin, duk bakarrik ikusten dukana.
22. Edertza gordeak, goxagai gordeak!
 Har nezazue, duzkitan hemengo ziloak!
 Hauts eni hezurak, urt-araz haragi hau,
 Zuen gana joan nadin oinazetan zehar,
 Hiltzea jasanik, ondikotz! hasi behar
 Dut lanean, atsedenean bururatu.
23. Arau ezak, Jainkoa, nik ikharan ezin
 Egina hire manuen dorpearekin:
 Nahi duk bizi nadin, nahi diat ere.
 Ophatzen dutan on hortaz ote hiz bekaitz?
 Enetako bizi hau eskas duk eta gaitz,
 Lurrean ahul, Zeruan bizi laiteke.
24. Gaitz baizik etzait, bain(a) esperanzaz beterik:
 Min luze hunen nazka gogorren ondotik,
 Sendatzeko dautak eskua luzatuko.
 Gura hoin ederra dutalarik gogoan,
 On bat denaz geroz helburua bizian,
 Bizitzen ikas ezatak, ontsa hiltzeko.

Zati herena

I

1589

Bere sukarrax

Ene hezurretan zer ari
Zirezte lanhoxka sutsuak,
Khe 'ta phindarrez atsedena
Nitan ithoz beti 'ta beti?

Zainez zain erretzen nauzue
Gar, itxindi horien suan,
Zuen itzuli guzietan
Hatsa galtzen baitut ere.

Begiak zuen gatik itsu
Estali zaizkit lanoez,
Itzalik baizik ez ikustez
Gau iluna zaie barnatu.

Munak, arimaren egoitza,
Zoriz arrazoinaren alhor,
Presondegi latz bezain idor
Zuen gar laztagarriena.

Munetan ehun margolari
Ari zaizkit amets erotan
Eginez ene lilluretan
Su, lur, urez et' airez irri.

Nahas-mahas dut gogamena
Noiz mendietara nau jauzten,
Noiz zilozoletara jausten,
Bultzan nola den bultztua.

Ene mintzoa hain da garhi,
Eztu doi-doia hats-hartzetik
Emaiten hasperen bat baizik
Gaitzen lezetik dena jalgi.

Antsia dut handiegia,
Gaitz erraiteko dut orotaz,
Noiz nahi hartua niz dudaz
Nihaur ote nizanez bada.

Joiten ari nauen gaitz horri
Erkidaturik amoreak
Joiten gituen errabiak,
Huts banagiela diot orai.

Erran behar dut ageriki:
Gaitz hoin eroaren ondoan
Nahiago dut mil(a) alditan
Bizian maitatzen jarraiki.

B(elesbat) D(u) F(ay jaunaren) bersuak (*)

(*) Belesbat du Fay jauna du poetak mintzarazten errege Henri-k ere maite zuen andere bati.

Zure lege bortitzen estekan arima
Preso gelditu zizatan egun trixtetik,
Soa begietan, beharrian mintzoa
Zure zerbitzuko lotsaz zuri harturik,

Gutiziak nituen aldatik baztertu,
Egun oroz itxaroz, etsipenez joak,
Hautatu dauet zure bertutetan portu
Azkenik, ezarri nahiz segurtatuak.

Iduriz Maitasunak zematán lagungo,
Hain zuen aurpegia zohar ald' orotan,
Jainkoek dutena baino zerbait gehiago
Zuhaurek erakusten zinuen elhetan.

Maitasuneko zohardi horrek ekaitza
Zuen barnean, atsedena gendu zautan
Ezen zure solasen kontrako gogoa
Zinuen zuk solas ederrenen azpian.

Ikusiz hartua nintzala, amultsuki
Orde, merezi nuena zintzotasunaz,
Begi haserreaz erhautsi nauzu bortizki

Sariztatzeko hoin ederra zen egintzaz.

Erdainuz erdainu, oinazean oinaze
 Nik leialki egin guzien sari ziren,
 Zure zigorreko gai ezpanintzan ere
 Zure Menean jartzeko gai izan arren.

Oinaze ainitz jasanik, pairu luzea
 Bortxaturik haserre nitan aldatu zen,
 Haserreak phiztu zautan mendeku gura,
 Ohorea hiltzen hil gab(e) ikus enezaken.

Ifernuak berak ahuldurik ikusi
 Baininduen, nahiz den sorgor urrikitan,
 Bekaizgoaren zurd(a) odolduz ezarri
 Zauzun bertz(e) adixkidantza korropilotan.

Aithorrazu zintzoki, gaitz horiek sendi
 Baitituzu 'ta zure griñen zorigaitzak,
 Maitasunezko gauzan direla segurki
 Laidoak haien zigorrak bezain segurrak.

Zure min bakarrak neure guziak ditu
 Gainditzen, urriki dut, hau baizik ezpaliz,
 Zuhaur nola send(a) ondikotz! ezpadakizu
 Ni zure jakinean sendatuko bainiz.

Izan daiteke gogoz aldatzen bazine
 Alda laitezkezula zure zorigaitzak,
 Bekaitzak lukela mendekuaz ahalge
 Ezin aurkituz abantail hartzeko gaiak.

Uste dut bederen: hori phorog(a) ezazu
 Are librekiago nun debekatzen den.
 Igurikan aspertzen da, bana jakizu
 Ongi zuzen egin bat ezin dela galtzen.